

Nik, **JESUS M<sup>a</sup> MADINABEITIA JAUREGUI** jaunak, Oñatiko Udaleko behin behineko idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikulua xedatutakoaren arabera

**Honako hau EGIATZATZEN DUT:**

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, osoko bilkurak, 2024ko uztailearen 18an, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

**"2.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: 2023ko Kontu Orokorrak ( 2024ko ekainaren 11ko Kontu batzorde bereziak diktaminatutakoa)**

Idazkariak Alkatearen proposamen hau irakurri du –dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

" 2024ko ekainaren 11an egindako Kontuen batzorde bereziaren aldeko irizpena jaso zuen ondorengo diktamenak, Udal Kontuhartzaileak (Paskual Elustondo Darpon jaunak), ziurtatzen duenez.

" 21/2003 Foru Arauaren 62, 63 eta 64 artikuluek diotenari jarraiki,

Gaia aztertu eta bozkatu ondoren, 2024-06-11ko Kontuen Batzorde Bereziak, bertan azaltzen den bozkarekin, **ALDEKO TXOSTENA LUZATU DIO** honako

**AKORDIO PROPOSAMENARI:**

"

**1.- 2023ko Kontu Orokorrak**

Kontu hartzaileak bere Memoriaren berri ematen du:

**2023ko UDAL ENTITATEEN KONTU OROKORRAREN MEMORIA**

Kontu-hartzaile honek, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 62, 63 eta 64 artikuluek diotena betez, ondorengo Memoria luzatzen du:

**MEMORIA**

**A.- Udalaren, S.Martin egoitzaren eta udal enpresen finantza eta kontu-ikuskaritza eta efikazia-kontrola eta Udalaren ondoko kontrol kontu-hartzaile osoaren lagina**

Oñatiko Udalaren, S.Martin Egoitzaren eta enpresa publikoen barne-kontrolak hiru modalitate ditu:

- 1.- Funtzio ikuskatzailea: Ondoko barne-kontrol ikuskatzailea
- 2.- Finantza eta kontu-ikuskaritza kontrola
- 3.- Efikazia kontrola

A-1.- Funtzio ikuskatzailea: Ondoko barne-kontrol ikuskatzailea

Funtzio ikuskatzailea, ikuskatze mugatuaren bidez egiten da eta gero lagin adierazgarri baten ikuskatze osoa gehitzen zaio.

2020ko otsailaren 27ko Osoko Bilkuran, besteak beste, 2020ko Finantza Kontrolerako Urteko Planaren berri eman zen. 2024ko maiatzaren 30eko OBn honako dokumentuen berri ematea aurreikusten da:

- Barne fiskalizazioa: Laburpen txostenaren berri ematea
- Barne fiskalizazioa: Egokitasun Txostenaren berri ematea
- Barne fiskalizazioa: Ekintza Planaren berri ematea

Ikuskatze mugatuaren ezaugarri nagusia aurretiazkoa izatea da. 2023ko ekitaldian hala jardun da eta ikuskatze mugatuan ziurtatu da, eduki ekonomikoko eragiketak araudira doitu direla. Ikuskatze osoari dagokionez berriz, lagina jasotzen da Kontuhartzailletza(W)/paskual(X)osagarria/Fiskalizazio-Barne kontrola/Barne kontrola/2023-Barne Kontrola/2023Fiskalizaio osoa+Finantz artxibategian.

A-2.- Finantza eta kontu-ikuskaritza kontrola

2023ko Kontu Orokorra sei entitateetako kontuez osatuta dago:

- Alde batetik: Udala, San Martin Egoitza Erakunde Autonomoa, Oñargi SL, Oñatiko Ur Jauziak SA eta Merkaofia
- Bestetik, Suradesa administrazio zentralak Oñatiko Udalari atxikita.

Aipatu erakundeak, Udala ezik, ez daude kontu-hartzailetzako eta aurretiazko ikuskatze-kontrolaren menpe; finantza- eta ikuskaritza-kontrola ondoren egiten da, ikuskaritza prozeduraren bidez. Erakunde bakoitzaren atalean aipatuko da zer iritzi eman duen ikuskaritza-enpresak. Hala ere aurreratu daiteke, beren iritziek zera diotela, erakundeen eragiketek eta kontuek irudi fidela azaltzen dutela.

Kontu Orokorrak, eskematikoki esanda, bera osatzen duten entitate bakoitzaren Balantzea, Ondarearen emaitza ekonomikoen kontua, Ondare garbiaren aldaketak, Diru-fluxuen egoera-orria, Memoria eta Aurrekontuaren Likidazioaren dokumentazioa (enpresen kasuan ezik) izaten ditu. Azpimarratu beharra dago, Oñargi SL eta Ur Jauziak SA enpresen kontuak kanpo ikuskaritza-enpresa pribatuek ikuskatzen dituztela (ATTEST). Udalaren kontuak urtero Herri Kontuen Euskal Epaitegiak fiskalizatzen ditu.

Kontu-hartzaileak dio, goian aipatu erakunde bakoitzak bere administratzaileak dituela eta beraiek arduratzen direla, besteak beste, kontabilitate kudeaketaz. Behin kontuak ixten dituztenean, Kontu-hartzaileak entitateok aurkeztu dokumentazioa jaso, aztertu eta txostena egiten du, Kontu Orokorren dokumentazioa osatuz.

2023ko Kontu Orokorrean dauden entitateei dagokionez, bakoitzaren memoria irakurtzera igortzeaz gain, zera esan daiteke:

- 1.- San Martin Egoitza Erakunde Autonomoaren kontuei buruz azpimarratu behar da, 2018.ekitaldiko uztailetik, bere jarduera Kabia erakundearen esku

dagoela. Beraz, 2023ko ekitaldian ere erakundeak ez du jarduerarik izan. Bertako erabakitze-organoa aztertzen ari da zein izan daitekeen erakundearen etorkizuna.

2023an mila € inguruko irabaziaz izan ditu; arrazoia zera da:

- Alde batetik, jabeagoaren udal zergen gastuak, eta bestetik, alokairuan duen ibilgetu baten sarrerak ( 2 mila eta 3 mila € inguruko gastuak eta sarrerak).

2.- Oñargi SL: Enpresa honen jarduera ekonomikoa 2002. ekitaldian hasi zen. Aurten, 147 mila euroko mozkinak ditu (iaz, 161 m.€). Oñatiko Udalarentzat partaidetza-kontuen zenbatekoa 636 mila eurokoa da (iaz, 634 m.€ ).

Oharra: Oñatiko Udalaren 2023ko ekitaldiaren Likidazioa egiterakoan, Oñargiren partaidetza kontuen zenbatekoa 610.261,39 €koa izango zela aurreikusten zen eta horrela kontabilizatu zen Udalaren kontabilitateko sarreretan. Attesten ikuskapena egiterakoan, zenbateko hori 635.842 €ra igo da. Diferentzia honen idazpena Udalaren 2024ko kontabilitatean egin da.

Oñargiren kontuak ATTEST enpresak ikuskatu ditu (ATTESTen txostena dokumentuari erantsi da), beraien azaltzen duten irudi fidela baieztatuz.

3.- Ur Jauziak SA: Enpresa honek 814 mila euroko irabaziaz ditu (iaz, 1.602 m.€). Auditoreen iritziz (ATTESTen txostena dokumentuari erantsi da), enpresaren kontuek egoera ekonomiko-finantzarioaren irudi fidela azaltzen dute.

4.- Merkaofña SL: Udalak, araudiak behartuta, 2003. ekitaldian sortu zuen enpresa da. 2009ko uztailean arte ez zuen jarduerarik izan, eta uztailetik aurrera, CHC enpresaren agente lanak egin ditu, abonatu bakoitzeko komisioa kobratuz.

2023an zehar abian jarri da Merkaofñako telekomunikazio aktibitatea, Onaro izen komertziala duena. Hori dela eta, Merkaofñak beste dimentsio bat hartu du, negozio-zifra bikoiztuz; Gastoak ere handitu dira.

2023ko ekitaldian 170 mila euro irabaziaz izan ditu (iaz, 17 m euroko irabaziaz). Igoeraren arrazoi nagusia CIDEren partaidetzaren sarrera da: 207 m.€.

5.- Udalaren kontuei buruz esan, 2023ko Aurrekontuaren Likidazioaren Memorian ekitaldiko kudeaketa eta entitatearen egoera ekonomikoari buruz esandakoa ez dela aldatzen. Gainontzeko datuei dagokienez, egin den gauza bakarra zera da, Likidazioko datuak kontabilitate pribatuaren antzeko formatuan ipintzea.

6.- Suradesa: 770 €ko irabaziaz ditu (iaz, 199 €koak)

#### A-3.- Efikazia-kontrola

2023ko Likidazioko dokumentazioan gastu eta sarrera kapitulu bakoitzaren gauzatze eta burutzapen mailak azaltzen dira, baita departamentuenak ere.

### **B.- Gainontzeko informazioa**

Memoria honetan kontabilitateari dagozkion zenbait informazio jasoko da.

#### **1.- Amortizazioa**

Amortizaziorako irizpidea aurreko urteko berdina da, alegia, erreferentziatutako Sozietateen gaineko Zergaren 7/1996 Foru Arauaren 11. artikuluko taula erabili da.

Bestalde, Kontuen Epaitegiak 2020ko Udal Kontuen fiskalizazio txostenean adierazi bezala, "erabilera orokorrera bideratutako ibilgetuen" amortizazio zuzkidura eta amortizazio metatua txertatu dira kontabilitatean.

SINA17c95a62-fe0d-477c-abe5-12d981a44078

**2.- Aurrekontuaren Likidazioaren eta Kontabilitate Orokorreko datuen arteko erlazioa.**

Atal honen xehetasunak Kontu Orokorren A liburuki honetan azaltzen dira. Ondoren, Aurrekontuko datuak eta Ondare kontabilitatekoak bat datozela egiaztatzeko erabili diren konprobaketak zerrendatzen dira.

**3.- 2022. urteko emaitza kontuz aldatzea**

2023. urteko kontuak itxi baino lehen, 2022. urteko emaitzak, "1290:Ekitaldiko emaitza" kontutik "1200: Aurreko ekitaldietako emaitzak" kontura aldatu dira.

**4.- Kobragarritasunari buruzko ikerketa**

2023ko Aurrekontuaren Likidazioaren 1.i puntuan zera jasotzen da.

**"1-i.- Saldo kobragaitzen estimazioa**

Aurtengo kobragaitz edo kobraezinen zenbatekoa kalkulatzeko irizpide hauek erabili dira (21/2003 F.A.-ren 48.6 art.):

a.- Kontuetan izendatu zirenetik 24 hilabetetatik goranzko antzintasuna duten sarrera onarpenak jaso dira: 148.677,97 euro

b.- Errolda fiskalen kobrantza-maila kontutan izanik kobragaitzat jo direnak (Udalgida-web orria-2022: % 98): 12.818,41 euro.

Guztira: 161.496,38 euro.

**5.- Konprometitutako abalak**

Ez dago konprometitutako abalik.

**6.- Sektore publikoko entitateetan partaidetza kontuari buruzko zehaztapena**

\_\_\_\_\_2023-10-26ko OBn erabaki zen Oñatiko Udala EHKOM erakundeko bazkide-laguntzailea izatea, 2.500,00 €ko zenbatekoarekin.

**7.- Inbentarioan aldaketak**

Oñatiko Udalak bere inbentarioa eguneratzeko kontratu bat du Sastein SL enpresarekin. Honek, ekitaldia bukatu ondoren udal ondarea berraztertzen du eta baita txosten bat luzatu ere, non egindako aldaketak arrazoitzen diren. Txostena iritsi da eta, Kontu Orokorren kontabilitatean beharrezko idazpenak egin dira, inbentarioaren balorazioa eta balantzea bat etor daitezen.

**8.- Doikuntzak**

A-2 puntuaren 2. Atalean (Oñargi SL) aipatutako oharra:

"Oharra: Oñatiko Udalaren 2023ko ekitaldiaren Likidazioa egiterakoan, Oñargiren partaidetza kontuen zenbatekoa 610.261,39 €koa izango zela aurreikusten zen eta horrela kontabilizatu zen Udalaren kontabilitateko sarrereetan. Attesten ikuskapena egiterakoan, zenbateko hori 635.842 €ra igo da. Diferentzia honen idazpena Udalaren 2024ko kontabilitatean egin da.



**9.- Konklusioa**

Udal Entitateen Kontu Orokor hauek, Oñatiko Udalaren ekonomi esparruko ondarearen, egoera finantzarioaren, emaitzen eta lortu eta aplikatutako baliabideen irudi fidela islatzen dute. "

Batzordekideei gogorarazten zaie, Kontu Orokor hauek, Batzorde Berezi honen txostenarekin, jendaurrean ipiniko direla 15 egunetako epez, eta ondoren Osoko Bilkurak dagokion akordioa hartuko duela.

Kontuen Batzorde Bereziak, aho batez, 2023ko Oñatiko Udalaren sektore publikoaren Kontu Orokorren aldeko txostena luzatzen du."

Gaia azterturik, eta kontuen batzorde bereziaren aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

**Lehenengoa.-** Onartzea Oñatiko Udaleko 2023ko kontu orokorrak.

**Bigarrena.-** Behar bezala onartutako kontu orokorra Herri Kontuen Euskal Epaitegiari igortzea. "

\*\*\*\*\*

Gaia aztertuta, eta Ogasuna informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik denak bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute. "

**Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.**



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2023ko KONTU OROKORRA

**CSV/EKS:**

SINA17c95a62-fe0d-477c-abe5-12d981a44078

Digitalki sinatua:



**Izaro Elorza Arregi**

**Aikatea**

**Data:** 2024/07/26 10:29:22

Digitalki sinatua:



**JESUS MARI MADINABEITIA JAUREGI**

**Behin-behineko idazkaria**

**Data:** 2024/07/26 12:46:06